EUROPAR BATASUNEKO NEKAZARITZA POLITIKA BATERATUAREN ERREFORMA BERRIARI BURUZKO OHAR KRITIKO BATZUK, IKUSPEGI SOZIAL BATETIK EGINAK

"1984ren hitz-ostean George Orwellek deskribatzen du bere irudipeneko diktadurak erabilitako prozedurarik eraginkorrena pentsamendu heterodoxo baten garapena oztopatzeko. Urtero, aurrekoa baliogabetzen duen hiztegi berri bat inprimatzen da, eta aurrekoaren ale guztiak suntsitu egiten dira. Edizio bakoitzak aurrekoak baino hitz gutxiago ditu, hots, pentsatzeko era gutxiago. Urterik urte pentsamendua urritu egiten da, garapen libre baterako bere posibilitateak gutxiagotuz. Orwellen diktadura ez da existitzen. Baina galdetu ahal diogu geure buruari ea 1984an mendebaldeko demokraziak ez ote diren helduko antzeko egoera batera. Ez, noski, hitzen kopurua murrizteagatik, egunero neologismoak sortzen ari dira-eta, baizik eta hitzak kateatzeko eta ideien arteko loturarako mekanismoak deuseztatzeagatik, horiek baitira sintesiak eraikitzeko aukera ematen dutenak. Hala balitz, ezarritako ordena ezin liteke, jada, zalantzan jarri, ordena diferente baten ahalbidea eta prozesua irudikatzeko gaitasunik ezagatik. Egonkortasun soziala, hori bai, oso indartua geratuko litzateke."

Maurice Duverger
Jannus, les deux faces de l´ Occident (1972)

Jakina denez, Nekazaritza Politika Bateratuaren (N.P.B.) erreforma berri bati ekiteko proposamena egin berri du, joan den uztailean, Europar Batasuneko (E.B.) Batzordeak. Bestalde, urriaren 24an eta 25ean izan den Europar Kontseiluaren bileran erabakitakoak ez omen du erreforma hura bertan behera utziko, nonbait kontrakoa irakurri dugun arren. Nekazaritzako Komisarioak berak esan duenaren arabera, gehienez, erreformaren atal batzuen ezarpena 2.006ra arte atzeratuko bide dira, besterik ez. Beraz, aurrera doala pentsatuz, komenigarria da gai honetaz hitz egitea.

Erreformari buruzko jarrerak sailkatzeko ahalegintxo bat

Zer nolako erantzun eta balorazioak izan ditu delako erreforma berriak?

"Alde" ala "kontra" azaldu izanaren aztertze hutsak ez liguke argi gehiegi emango. Kasu askotan arrazoi berdintsuek (edo ustezko berdintsuek) eraman dituzte batzuk alde eta beste batzuk kontra azaltzera. Esate baterako, europar estatuen aurrekontu-interesengatik, gehienbat, Frantzia erreformaren kontra agertu da (dirua galduko omen duelako), baina Alemania, berriz, alde (gastua aurreztuko omen duelako). Era berean, pentsatu behar dut kontsiderazio sozialak izan direla Greenpeace erakundea erreformaren alde, eta, aldiz, Europako Nekazarien Koordinakundea kontra azaltzera eraman dituztenak.

Nik neuk, apur bat sinplifikatuz, bost ataletan sailkatuko nituzke egon diren erantzunak (erreformaren aldekoen artean bi, kontra daudenen artean beste bi, eta azken bat ez alde ez kontra dagoela-edo dioena):

1) Erreformaren aldeko jarrera "liberalak". Fishchler komisarioa eta bere jarraitzaileen jarrera dugu hau. Munduko Merkataritza Erakundearen (M.M.E.) planteamendu berriei egokitzeko nahian oinarritzen da. Honekin batera, E.B.aren aurre-

kontu-arazoak konpondu nahi ditu, eta aldaketa (txiki) batzuk ezarri nekazaritza laguntzen sisteman.

2) Erreformaren aldeko bestelako jarrerak. Herritargoak, iritzi publikoak, edo dena delakoak, erreforma begi onez ikusten duela eman (nahi izan) da aditzera. Agian halaxe da. Egia esan, askotan gertatzen ohi den bezala, ustezko edo teoriazko helburuei buruz (ez ezarri nahi diren bitartekoei buruz), soilik, mintzatu da gehien bat, eta aipatzen diren helburu orokorrak (edo horietatik batzuk, behintzat) nahiko erakargarriak gerta daitezke iritzi publikoaren sektore zabal batentzat (nor ez dago ingurugiroaren alde edo elikaduraren ziurtasunaren alde, esaterako.....?). Baina ez bakarrik iritzi publiko amorfoak. Bestelako talde, sektore edo pertsonalitate jakin, dinamiko eta ganoradun batzuk ere erreformaren alde azaldu dira. Azken hau bereziki kezkagarria da erreformaren bertuteak inondik ikusten ez ditugunentzat. Hala ere, ez da ezkutatu behar, noski, jarrera hauek egon badaudela. Eta hauexei erreparatu beharko diegu, bereziki, erreformaren detraktore garenok. Nik ezin dut sinestu, adibidez, Greenpeace erakundea tronpatua izan denik helburu eta bitartekoen arteko jokoa ikusi ez izateagatik. Zein izan daiteke, orduan, Greenpeace erreformaren alde jartzearen arrazoia? Horixe jakin nahi nuke nik ere!

3) Erreformaren kontrako jarrera "kontserbadoreak". "Kontserbadore" diot honako zentzuan: oraingo "status quo"aren defentsoreak direla, erreformak suposatzen duen aldaketa nahi ez dutelako, alegia. Hauen ustez erreforma urrunegi doa. Erreformaren kontra azaldu den gehien entzuniko ahotsa dugun honek honako honetan du funtsa: edo europar estatu batzuen aurrekontu-interesetan edo korporatibismo urri ta labur batean. Zaku honetan sartuko nituzke, berdin, esaterako Espainiako gobernuaren jarrera zein Europako bazter guztietako nekazaritza sindikatuen (edo erakunde profesionalen) jarrera ere, azken hauetan salbuespen bakar batekin. Erreformaren kontra jartzeko arrazoi korporatibistak batzuetan

bestera disimulatu nahi izan dira, interes sozial faltsu batzuk aireratuz, baina beste askotan ezta hori ere. Oro har, honakoa izan da emaniko irudi ageria: "dirua kendu nahi digute eta ez gaude horretarako prest", beste kontsideraziorik gabe.

4) Arrazoi sozialetan oinarrituriko erreformaren kontrako jarrerak. Hauek ere kontra azaltzen dira, baina aurrekoak ez bezala, ez dute uste erreforma urrunegi doanik, guztiz kontrakoa baizik, hots, erreformak ia-ia berdin uzten dituela gauzak, funtsean. Arrazoibide sozialak dira jarrera honen jarraitzaileek darabiltzatenak. Nik dakidala, Europako Nekazarien Kordinakundea (ENK) eta koordinakunde horren erakunde partaideak (EHNE eta ELB barne) dira halako jarrera espreski hartu duten bakarrak, edo, behintzat, halako ikuspegi batekin balorazioa zehatz bat egin duten bakarrak. Esan gabe doa: ni neu laugarren jarrera honi atxikitzen natzaio.

5) "Ez alde-ez kontra" azaldu nahi lukeenik ere ez dugu falta. Hementxe hartzen du lekua Eusko Jaurlaritzaren Nekazaritza Sailak agertu duen jarrerak. Honen arabera, erreforma kontraesankorra da: bere helburuak ontzat jo behar dira, ez, ostera, bitartekoak. Honez gainera (ez da aurrekoaren gauza berdina), Nekazaritza Sailburuak erreformaren arlo batzuk kritikatu ditu, baina beste arlo batzuk txalotu (ikus, esate baterako Nekazaritza Sailburuak urriaren 21ean Legebiltzarrean egin zuen agerraldiari buruzko informazioa biharamuneko prentsan). Ez dut zalantzan jartzen Jaurlaritzaren jarreraren seriotasuna, baina nire ustez Jaurlaritzak bi uren artean igeri egin nahi du. "Ez alde-ez kontra" "bai alde-bai kontra"ren berdina izan daiteke, eta aukera ematen du jarrera erabat ezberdina azaltzeko, segun eta zein arlori buruz mintzatzen garen (hori ez litzateke batere kezkagarria), baina, baita ere (eta hau bai larria litzateke) segun eta non edo noren aurrean mintzatzen garen. Jarrera eklektikoen bidezkotasuna ukatu barik (sarritan, hauek izaten dira manikeismo baldarretatik libratzen gaituzten bakarrak), kasu honetan, behintzat, arriskua ikusten diot hain

malgu eta aldakor izan daitekeen jarrera honi, nire ustez jarrera hau berau ere kontraesankorra delako, zehaztapenetan sartzen garen momentuan egiaztatzen denez.

Zeinekin eta zertaz eztabaidatu

Aurreko sailkapenean hautatutako terminologia eta zenbakiak erabiliz, zera esan nahi dut: arrazoi sozialetan oinarrituriko erreformaren kontrako jarrerakoak (4), urruntxoegi gaudela bai erreformaren aldeko jarrera liberaletatik (1), eta bai erreformaren kontrako jarrera kontserbadoreetatik (3) ere. Interes handiagoa daukagu (edo nik neuk dut artikulu honetan) erreformaren aldeko bestelako jarrerakoekin (2) eta ez alde-ez kontra egon ahal diren horiekin (5) eztabaidan sartzeko eta arrazoibideak elkartrukatzeko. Noan, bada, horretara, apurtxo bat izanik ere.

Bosgarren sailkatu dugun jarrerakoekin gauza batean guztiz ados nago, alegia, erreformaren helburuaren (ageriko edo idatzizko helburuak) eta bitartekoen artean kontraesan ikaragarria dagoela. Baina, hau makala ez izanik ere, ez da problema bakarra, beste hiru problema ere badaude: a) helburuen euren arteko kontraesanik ere badago; esate baterako, nire aburuz, ez dira bateragarriak alde batetik konpetitibitatea eta merkatuarenganako orientabidea areagotzea, eta, bestetik, ingurumenaren zaintza zein elikaduraren ziurtasuna bermatzea; b) helburu guztiak ez dira onak; ageriko edo esaniko helburu batzuk ezin ditut nire egin: esaterako, M.M.E.k jarritako murrizketei egokitzea, edo, orokorkiago, konpetibitatea (hitz horrek ohikoa ez den beste esanahirik hartzen ez baldin badu, behintzat); eta c) badira, azkenik, izan beharko luketen eta erreformaren testuan ageri ez diren beste helburu batzuk, adibidez nekazarien enplegua emendatzea edo gutxienez mantentzea.

Bigarren sailkatu ditugun jarrerak nahiko ulergaitz egiten zaizkit. Oso errespetuzkotzat dut, esate baterako, Juan Ignacio Perez Iglesias, EHUko irakaslearen iritzia. Eta horregatik ez

nizkion ulertu Euskaldunon Egunkarian duen zutabean NPBren erreformari buruz idatzitakoak. Batetik poza agertzen zuen zentzunbakoak diren dirulaguntza batzuk (neu ere kalifikazio horrekin ados) erreformak desagertaraziko dituelako (Bai...?... Hala izango dela uste al du...? Nik ezetz uste dut). Bestetik, ez du Fischler komisarioarenganako laudoriorik aurrezten, prestatu duen "proposamen iraultzailearengatik" (?). Benetan ezer iraultzazkorik ikusten al du Perezek Fischlerren proposamenean...? Nik neuk ez. Esplikazio bakarra topatzen diot irakasle prestu honek azaldutako jarrerari: bere artikulua uztailaren 11n argitaratu zen, eta Europako Batzordearen Txostena (oraingoz, erreformari buruz dagoen testu ofizial bakarra) uztailaren 10ean aurkeztu zen. Seguru asko Perezen balorazioak ez ziren oinarritu erreformaren testu ofizial horretan, baizik eta bestelako datu edo agirietan. Baina, jakina, gauza bat da diskurtso ofizialak, hitz handiz, esaten duena (lortu nahi diren helburuei buruz eta abar), eta beste gauza bat da proposamen, neurri eta erabaki zehatzetan benetan egiten dena. Eta batzuetan (hauxe da kasu argi bat) sekulako amildegi edo dibortzioa dago bataren eta bestearen artean.

Greenpeacek, eta harekin batera beste zazpi erakunde ekologistek, harturiko jarrera ere erreformaren aldekoa izan da. Hitzez hitz esan omen dute erreformaren helmuga honako hau dela: "...sostengaezin eta ingurugiroaren suntsitzaile den nekazaritza batekiko finantza-laguntza bertan behera uztea". Aldarrikapen horien datak ikusita, pentsatu behar da hauek bai, seguraski irakurrita dutela Batzordearen txostena, baina nik ez dakit zelan. Gaia pixka bat ezagutuz gero, txosten horretatik inola ezin ondoriozta daiteke –nire uste apalean- nekazaritza sostengagaitz eta asozial (neu ere ados kalifikatiboetan) harekiko finantziazio-bideari amaiera emango zaionik. Guztiz aitzitik, orain arte eduki ditugun burugabekeriei burugabekeria berriak gehitu nahi zaizkiela uste dut nik. Hau guztia patxadaz esplikatzeko, erreformaren xehetasun batzuetan sartzea ezinbestekoa da.

Nekazaritzarako laguntza zuzenen orain arteko sistema zertan datzan eta erreformak horri buruz zer dakarren

Jakina da N.P.B., bere jatorrian, honako bi oinarrietan zetzala: batetik nekazaritza-produktuentzako prezioen interbentzioan, eta, bestetik, barruko merkatua kanpokoetatik babestean. Inflexio-puntua 1992ko erreforman ezar daiteke. GATT deituriko akordioak tartean zeudela, hona zer egin zen orduan: barruko merkatuaren babes-sistema ahuldu (desmontatzen hasi) eta nekazaritza-produktuen interbentzio-prezioak jaitsi. Prezioen jaitsiera konpentsatzeko asmoz "laguntza zuzenak" ezarri ziren. Laguntza hauek ez dira ematen produkzio errealaren arabera, baina bai produkzio maila estandar baten arabera. Adibidez, zonalde geografiko jakin bati kalkulatzen zaio hektareako honenbeste gari ekoizteko gaitasuna; etekin estandar hura kontuan hartuta, ordaintzen zaio laguntza zonalde hartako laborariari, gariz ereiten dituen hektarea kopuruaren arabera. Adibidean garirako esan dugunak, "mutatis mutandis" beste produktu batzuetarako (ez guztietarako) balio du, produktu bakoitzak bere laguntza-sistema duelarik. "Agenda 2.000" izeneko erreformak ildo honetatik jarraitu, besterik ez zuen egin.

Zeintzuk dira hain laburki deskribatu dugun sistemaren ondorioak?

1.- Laguntzen banaketa ez-orekatua. Gutxi batzuek (ekoizle handienek) hartzen dituzte laguntza gehienak. Hainbestetan aipatzen den 80/20 ratioak horixe adierazi nahi du: laguntzen %80a ekoizleen %20ak hartzen duela.

2.- Aurrekoa baino larriago den zerbait: Laguntzen hartzaileetarik askok eta askok ez luke inolako laguntzarik hartu beharko, errenta handietako jendea da-eta. Askotan ere errepikatu da Albako dukesa dela Espainian NPBren laguntza gehien eskuratzen duena. Kontua da Albako dukesaren antzeko (handitxoago edo txikitxoago) asko dagoela Europan zehar. Nola

justifika daiteke diru publikoa horiei ematea, eta, gainera, egiten den kopuruetan?

3.- Laguntzaren zioa (laguntza hartu ahal izateko eskubidearen egitate sortzailea) produkzio kopurua da (zenbat eta gehiago hobe). Beraz, egitate sortzailea ez da, inola ere, merkatuak ordaintzen ez dituen beste ondasun publiko batzuk (ingurugiroaren zaintza, lurraldearen kudeaketa,...) ordaintzea. Honi buruz gezur galantak esaten ohi dira behin eta berriro: laguntza hauen ustezko justifikazio soziala (beste ondasun publiko horien ordaina ematea, alegia) ez da sustengatzen, ezer ez delako ordaintzen kontzeptu horietan. Are gehiago, kontzeptu horien kontra egiten duen zerbait da ordaintzen dena. Argitu behar da, gainera, ingurumenaren zaintzari (eta abarri) loturiko ustezko baldintzak (orain indarrean daudenak) kasu askotan borondatezkoak direla, haien xehetasunak estatuek arautzen dituztela (eta oso arau ezberdinak daude), eta zenbait kasutan aplikazio praktikoa ez dela serioa edo erabatekoa izaten (nitratoei buruzko direktiba, adibidez). Beraz, ingurugiroaren kontua, orain artean behintzat, elementu erretoriko hutsa baino ez da izan.

4.- Aurrekoarekin oso lotua dago bultzatzen ari den nekazaritza ereduaren problema. Laguntza kopurua produkzio kopuruaren arabera izanik, eta prezioen jaitsierak laguntzaren bitartez duen konpentsazioa bakarrik partziala denez, prezioen beherakadari erantzuteko modua produkzioa handitzea izaten ohi da. Modu horretan kontzentrazioa bultzatzen da, eredu hiperintentsiboak bultzatzen dira (behi eroen kasuak, esaterako, demostratu zuenez, ingurumenerako, zein elikaduraren ziurtasunerako kaltegarria den eredua, hain zuzen ere) eta, soberakinak birsortuz ta merkatuak gainezkatuz, prezioen gainbehera berriak probokatzen dira kasu batzuetan ere.

Bada, panorama hau da erreforma berria konpontzera datorrena, batzuen ustez. Dakusagun zelan. Hasteko, orain artean

dauden laguntza zuzen guztiak (esan bezala, produktu ezberdinetan antolatuak) desagertu eta haien ordez laguntza zuzen bakar bat ezarriko da, produkzio motak eta sektoreak ezberdindu barik. Laguntza berri hau produkziotik "bereizia" izango da (hau da "desakoplamendu" deitzen duten kontzeptu dontsua); horrek esan gura du laguntza berriak, orain ez bezala, ez duela loturarik izango produkzioarekin. Orduan, zeren arabera emango da laguntza, eta zeren arabera zehaztuko da laborari bakoitzarentzako laguntza kopurua? Zein da laguntza eskuratzeko eskubidearen "egitate sortzailea"? Erantzuna: orain arteko laguntza zuzenen sistemaren arabera kobraturiko dirulaguntza, horixe da laguntza berriaren egitate sortzailea, eta kasu bakoitzean eskuratzeko laguntza kopurua zehazteko irizpidea. Bestela esanda, orain arteko sistemaren arabera hartutako "eskubide historikoak" dira ezarri nahi den laguntza berri bakarraren funtsa. Argi dago honek lehenagoko injustizia iraunarazi edo betikotu, besterik ez duela egiten.

Insistitzen dut: laguntza berriaren egitate sortzailea lehenagoko pribilegioetan datza, eta ez beste ezertan. Ez al dute esan, bada, erreformaren sermolariek laguntza berria kobratzeko ingurumenari, elikaduraren ziurtasunari eta abereen ongizateari dagozkien baldintza gogorrak egongo direla? Ikus dezagun zertan datzan azken hau. Hasteko (argi gera dadila hainbestetan esanda), laguntza berrirako eskubidea ematen duena erreferentzia historikoa da, eta ez bestelako ezein betebeharrik. Bigarrenik, aurrerantzean ezarriko bide diren baldintza horiek guztiz zehaztu gabe daude. Erreformaren testua ikusita, zera ere ematen du, orain artean indarrean egon diren baldintza bertsuak edo antzekoak izango direla baldintza berriak; ez da bestelakorik argi uzten, eta, gainera, orain bezala, neurri handi batean estatuen eskuetan egongo da baldintzon definizioa. Eta hirugarrenik, ez dago egiazko baldintzarik, sasibaldintzak baino. Izan ere, erreformaren testuak dio baldintzen ez-betetzeak ez duela ekarriko laguntza kobratzeko eskubidearen galera, ez horixe; laguntza kobratu ahal izango da baina kopuru txikiagoan, segun eta ez-

betetzea zelangoa edo zenbatekoa izan den... Iruzur kutsua ikusten diot nik honi guztioni. Ingurumenari benetan mesede egin nahi bazaio, zergatik erreformak ez du ezertxo ere esaten ingurumenerako kaltegarriak diren produkzio-eredu eta sektoreei buruz, txerrien eta hegaztien produkzioei buruz alegia?

Baina deskalabruak ez dira amaitu. Esan bezala, laguntza berria produkziotik "bereizia" izango da. Produkziotik bereizia baina lurrari lotua (lurra saltzen baldin bada laguntza-eskubidearekin batera saltzen da). Honek lurraren prezioak oso gora eramango ditu, eta espekulazio berriak sortuko ditu, merkatu bi (laguntzaduna/laguntzabakoa) sortzearen ondorioz. Gainera –eta hau larria da-, laguntza kobratuta, lur horietan edozer egin ahal izango da: nahi den produktua ekoiztu edo produzitu gabe utzi. Nekazaritzaren funtzio produktiboaren deuseztapen honek zonalde batzuetako (pobreenetako) lurren abandonua ekarriko du, eta produkzioa, berriz ere, leku jakin batzuetan kontzentratuko da.

Errealitatean, proposatzen den laguntzen "bereizketa" honen helburua bat da, eta berak ez du zerikusirik ingurumenarekin edo horrelakoekin: M.M.E.k exijentzia berriei egokitzea. Jakina denez, M.M.E.k debekatu nahi ditu (lehia edo konkurrentzia "libre"aren kontrakoak omen direlako) nekazaritza-produkzioari loturiko laguntzak oro. Hortxe dago koska.

Bizpahiru hitz, bakarrik, erreformaren bigarren zutabea den "modulazioa"ri buruz. Gaizki deituta dagoen kontzeptu honek dirulaguntzen (edo lehenagoko dirulaguntzen ordezkatzera etorriko den dirulaguntza bakarraren) murrizketa esan nahi du. Planteatzen dena da urtero %3a murriztea, %20ra iritsi arte. Honi buruz hiru gauza. Lehenik, proposaturiko murrizketa nahiko lineala da, hots, era aski berdintsuan eragiten die ekoizle mota ezberdinei. Nolabaiteko progresibitate kontzeptu bat sartzen duen arren, nekazaritza hutsetik bizi diren laborari txikiak kaltetu egiten ditu bestelako ekoizle handien faborez. Bigarrenik, murrizketaren ondorioz aurreztuko diren diruak N.P.B.ren beste atal bate-

ra joango dira (Garapen Errurala deritzona). Bigarren atal honetarako erreformak proposatzen dituen kontzeptu berri batzuk ikusita (ez dago espaziorik hemen horretaz zehaztapen gehiago emateko), badago nahiko motiborik pentsatzeko agian ustiategi handiei batetik kenduko zaiena beste bide batetik itzuli ahalko zaiela. Eta hirugarrenik, ustiategi bakoitzak eskuratu ahal izango duen dirulaguntza kopuruaren "topea" iraingarria da: 300.000,- euro (= 50 miloi pezeta) urteko. Nola justifika daiteke esplotazio bakar batek horrenbeste dirulaguntza zuzena hartzea?

Azkena: beste norabide batean doazen proposamen batzuk

Artikulu honen burura M. Duverger, Zuzenbide Konstituzionaleko tratadista ospetsuaren aipua ekarri dut. Egiten digun abisua oso serioski hartzeko da. Pentsatzeko gaitasuna lapurtzen joan ahala (eta hori gertatzen ari den zerbait da) ezarritakoaren aldaketa imajinatzeko gaitasuna galdu ahal dugu, eta, beraz, ezer aldatzeko aukera bera ere.

Arrisku horietatik ihes eginaz, irudika dezagun, bada, nolako nekazaritza politika nahiko genukeen, eta eska dezagun horrelaxe datozela dugun N.P.B.ren balizko erreforma guztiak. Erreforma sakona beharko genuke, ez dago dudarik. Hona hemen, Europako nekazaritza politika berri horren ezaugarri edo ardatz batzuk:

1.- Lehenengo eta behin, Europarako nekazaritza bat nahi dugu, esan nahi baita, Europako merkatua hornitzea helburu duen nekazaritza bat, Europa barrura begira dagoen nekazaritza bat. M.M.E. ezbaian ipini behar da. Horrek esan nahi du "dumping" (produkzioaren kosteetatik beherako prezioak) modu guztiak gaitzetsi eta baztertu behar direla, bai inportazioetan eta bai esportazioetan ere. Esandakoak produkzioaren (produkzio kopuruaren) kontrola ere badakar.

2.- Europako "nekazaritzaren eredu" bat definitu behar da zehazki. Eredu hori askotan hitz handiz aipatzen dena izan daiteke: nekazaritza multifuntzionala, alegia. Multifuntzional hitzak esan nahi du elikagai onak eta seguruak sortzeaz gainera, bestelako funtzioak betetzen dituen nekazaritza nahi dela, funtzio horiek, besteak beste, honako hauek direlarik: ingurumenerako errespetua, lurraldearen kudeaketa, abereen ongizatea, eta abar. Definizio serioa eta zehaztua (hitz bakoitzaren ondorio eta esanahi guztiak argituta) behar da, erretorika huts guztietatik at.

3.- Eredua definituz gero, serioski, ezarri behar dira hari begira dauden politikak. Hasteko, intentsiboegi diren ustiategiei derrigorrezko desintentsifikaziorako neurriak ezarri behar zaizkie, horretarako transizio epeak eta ustiategi txikientzako laguntza bereziak emanaz. Esate baterako: lurrik gabeko abeltzaintza apurka-apurka baztertzea, hektareako abelburu gehienezko kopuruak ezarriz; pentsuetarako antibiotikoen erabilpena debekatzea; nitratoei buruzko direktibaren aplikazio zorrotza; irrigaketarako laguntzak bakar-bakarrik ematea geruza freatikoak arriskutan ez badaude; abere-ustiategientzako laguntza berezia proteina begetalak ekoizteko;...

4.- Baserritarrari diru sarrerak gehienbat produktuaren salmentatik etorri behar zaizkio. Agroklimarengatik, oztopo natural bereziak dituzten zonaldeetan (mendialdeetan eta) ustiategi bakoitzeko laguntza zuzen bakar bat eman daiteke, zehaztuko liratekeen faktoreen arabera (enplegua, produkzio sistema,...) modulatua.

5.- Definitutako ereduarekin bat datozen bestelako neurriak. Esate baterako, zirkuitu laburrak, merkatu txikiak eta errejionalak lehenestea, garraioak daraman denbora laburtuz, eta, modu horretan, ingurumena eta elikaduraren ziurtasuna babestuz...

Jabier Erize. 02-11-06